

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Asparreneko etxebizitza komunitarioaren barne erregimenari buruzko udal araudiari

Jendaurrean jartzeko arauzko aldian erreklamaziorik aurkeztu ez denez, iragarkia 2025eko urriaren 17ko ALHAOn (118. zk.) argitaratu zenetik aurrera, behin betiko onesten da Asparreneko etxebizitza komunitarioaren barne araubideari buruzko udal arautegia.

Hona hemen Asparreneko etxebizitza komunitarioaren barne araubideari buruzko udal araudiaren testu osoa:

Ongi etorri.

Laguntzadun etxebizitza honetan lan egiten dugun eta bizi garen pertsona guztiok ongie-torria egiten dizugu. Gurekin gustura sentitzea nahi dugu, eta pixkanaka toki hau zure etxe berria bihurtzea.

Elkarrekin bizitzea beti ez da erraza izaten eta guztiok ahal duguna egin behar dugu erres-petuzko eta adeitasunezko harremanak sortzeko eta giro egokia eta erakargarria lortzeko. Ho-rretarako, antolamendu egokia ezarri behar da eta elkarbizitza arau batzuk finkatu behar dira etxebizitzan harreman onak errazteko eta martxa ona ahalbidetzeko. Horixe da barne araubi-dearen eginkizuna.

Mesedez irakurri dokumentu hau arretaz eta saiatu bertan esandakoak betetzen.

Kokapena eta telefonoak.

Asparrena etxebizitza komunitarioa.

Herriko Enparantza, 11-1.

01250 Araia.

Telefono zenbakia: 945 314547.

Asparreneko etxebizitza komunitarioa mendekotasun egoeran (1. gradua) dauden adine-koentzako ostatu zerbitzua da, eta langileen laguntza du tutoretza, bitartekaritza, gizarte la-guntzako eta gainbegiraketako eginkizunak betetzeko, bai eta arreta pertsonala eta etxekoa emateko ere.

Eguneko arretako jantoki zerbitzuak intentsitate txikiko laguntza eskaintzen dio erabiltzaileari, otorduarekin soilik lotutakoa (astelehenetik ostiralera).

Helburuak.

- Adineko pertsonak beren ingurune sozialean gelditu daitezela ahalbidetzea, behar duten zaintza komunitatean bertan eskainiz.

- Haien autonomia pertsonalaren maila hobetzea, hura mantentzea, edota euren kabuz moldatzeko behar dituzten trebezia eta gaitasunen narriadurari aurrea hartzea.

- Bakardadea saihestea.

- Seguru senti daitezela sustatzea.

Edukiera eta banaketa.

- Ostatu zerbitzua: 12 lagunentzako lekua:

- 7 banakako gela eta 3 gela bikoitz.
- 2 egongela.
- Gosaltzeko eta askarirako jangela.
- 3 bainugela geriatriko.

- Eguneko arretako jantoki zerbitzua: 2 plaza.

Jantoki zerbitzua eta sukaldea lehen solairuan daude, Eguneko Arretarako Landa Zentroko (EALZ) instalazioetan; ondorioz, astelehenetik ostiralera espazioak partekatzen dituzte bertoko erabiltzaileekin (bazkaria soilik), eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, udal jantokiko zerbitzuaren erabiltzaileekin (bazkaria soilik).

Zerbitzuak eta jarduerak.

Etxebizitza komunitarioak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Gizarte arreta, tutoretza eta gainbegiratzea, gizarte laguntza, arreta pertsonala eta etxeko arreta.

Eta jarduerak antolatzen dira bai zentrotik kanpo, bai zentroaren barruan, Eguneko Arretarako Landa Zentroko erabiltzaileekin batera:

- Helburu terapeutikoa duten jarduerak: psikomotrizitatea, psikoestimulazioa.
- Jarduera soziokulturalak: irteerak, txangoak, ospakizunak.

Funtzionamendu eta bizikidetzara arauak

1. Arau orokorrak

- Zaindu bizikidetzara, higiena eta elkar errespetatzeko arauak zentroan eta zentroko jarduerak gauzatzen diren beste lekuetan, etxebizitzan giro ona errazteko.

- Modu egokian erabili etxebizitzak eskura jartzen dizkizun instalazio eta zerbitzuak.
- Eman topatutako edozein objektu zentroko langileei.
- Saiatu baliozko objekturik edo diru kopuru handirik ez izaten logelan.
- Bakoitzak nahi duenean oheratzea dago, baina beti gogoan izanda gainerako erabiltzaileak errespetatu behar direla.
- Errespetatu jardueren ordutegiak.
- Hartu kontuan ahoz zein idatziz ematen dizkizuten oharrak.
- Isilik egon atsedenerako orduetan.

2. Jatorduak eta jangela erabiltzea

Gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, askaria eta afaria adierazitako orduetan emango dira. Edozein arrazoi justifikatu dela-eta jantokira joan ezin baldin baduzu, jakinarazi aurretiaz.

- Otorduen ordutegiak:

Gosaria: 08:30 h.

Hamaiketakoa (hidratazioa eta fruta): 11:00 h.

Bazkaria: 13:15 h.

Askaria: 17:00 h.

Afaria: 20:00 h.

- Dieta orekatua emango da, elikadura osasungarria bermatzeko, eta hidratazioa egokia eta erabiltzaileen beharretara egokitua izango da. Janaria berdina izango dira guztientzako, mediku preskripzioaren bitartez dieta bereziak edo terapeutikoak agindu ez badira.

- Jangelatik ezin da atera ez janari galkorrik ez tresnarik.
- Saiatu ez jaten besteentzako desatsegina izan daitekeen moduan.

3. Logelak erabiltzea

- Zentroan sartzean logela bat esleituko zaizu. Zerbitzuaren beharrak direla-eta hasieran esleitutako logela aldatu behar baldin bada, beharrezko aurrerapenarekin jakinaraziko zaizu.

- Logela leku intimoa da, eta zu zara zure espazio pertsonalaren jabea. Beharrezko altzariak daude logeletan. Nahi izanez gero, objektu pertsonalak jarri ahal izango dituzu espazioak ahalbidetzen duenaren arabera eta betiere objektu horiek mugimendua oztokatzen ez baldin badute edo arriskutsuak ez baldin badira ez zuretzako ez logelakidearentzako -birentzako gelen kasuan-.

- Errespetatu erabiltzaile bakoitzaren espazio pribatua, atea jo beti edozein gelatan sartu aurretik eta itxaron sartzeko gonbita jaso arte.

- Gela eguneko edozein ordutan erabil dezakezu, eta bisitak ere jaso ditzakezu bertan, 10:30etik 12:30era eta 17:30etik 19:30era, pribatutasun osoz. Gogoratu logela partekatzen baldin baduzu komeni dela kideari jakinaraztea bisita izango duzula, bere espazio pribatua ere badelako.

- Garrantzitsua da egunerokoan egin ditzakezun jarduerak egiten jarraitzea, modu autonomoan edo etxebizitzako langileen berrikuspenarekin edo laguntzarekin. Zure logela eta gauza pertsonalak ordenatzen saiatuko zara, eta horrek nolabaiteko jarduera izaten lagunduko dizu.

- Higiene eta osasun arrazoiak direla-eta, logelan ezin izango dira izan edo gorde elikagai galkorrak.

- Segurtasun arrazoiak direla-eta, ezin da erre ez logeletan ez espazio komunean.
- Gelatik irteten den guztietan, argiak, telebista eta irratia itzali behar dira, halakorik badu.
- Instalazioetan antzematen den edozein anomaliaren berri eman langileei.

- Logela partekatzen baldin baduzu, kontuan izan beste pertsonaren eskubideak, bere espazioa, bere gauzak eta bere arropa errespetatuz. Ahalegindu bereziki logelakidearen atseden uneak ez eteten.

- Gela aldatu nahi baduzu, jakinaraz iezaiezu etxebizitzako langileei eta/edo gizarte langileari, aldatzeko aukerak azter ditzaten. Banakako logela ere eskatu ahal izango duzu, kontuan hartuz lehentasunezko irizpideak elkarbizitza eta osasuna direla. Horrelako kasurik egon ezean, esleipen irizpidea etxebizitza komunitarion antzintasuna izango da.

4. Arropa eta higiene pertsonala

- Norbere itxura zaintzea ongizate faktorea da norberarentzat eta inguruan dauden pertsonentzat.

- Arropa zure izenaz markatu beharko duzu, ez galtzeko edo akatsik ez gertatzeko.
- Etxebizitza komunitarioko langileen ardura da arropa garbitzea eta lisatzea.
- Makinaz garbitu ezin diren arropa delikatuak saihestu behar dira. Zentroa ez da mota horretako jantzien erantzule egiten.
- Arropa hondatuta dagoela begibistakoa denean, botatzea eta berritzea komeni da.
- Eguneroko higiena eta dutxatzea edo bainatzea maiz egingo dira eta intimitate osoz. Eguneroko higienarako edo bakarrik bainatzeko edo dutxatzeko zailtasunak baldin badituzu zentroko langileek lagunduko dizute.

5. Segurtasuna

- Ezin da erre zerbitzuko inongo instalazioan.
- Logeletan, telebistak, irratia eta musika ekipoak, tabletak, telefono mugikorak eta ordenagailuak baino ez dira erabiliko, eta arreta berezia jarriko da haiek erabiltzeak beste pertsona batzuei zaratarik eta eragozpenik ez sortzeko.
- Igogailua erabiltzean kontuan hartu haren gehieneko edukiera.

6. Langileekiko harremanak

- Etxebizitzako komunitarioko langileak zure esanetara daude, beharrezkoa duzun arreta kalitaterik handienekoa izan dadin.
- Langileen arreta ordutegia eguneko 24 orduetan izango da.
- Adi egon langileek eman diezazkizuketen jarraibideei, erabiltzaile guztien eta zure zeure onurarako.
- Etxebizitza komunitarioko langileek hala behar duten pertsonen emango diete laguntza. Gaueko arreta zerbitzua hasi arte, eta salbuespen gisa, haren senideek laguntza eman ahal izango diote erabiltzaileari, baldin eta zentroko langileekin eta gizarte langilearekin hala adostu bada.
- Errespetu, zuzentasun eta ulerkortasun osoz artatua izateko eskubidea duzu.
- Zentroko langileak zuri laguntzeko prest daude, jasotzen duzun arreta ahalik eta kalitaterik onenekoa izan dadin. Langile guztiengana jo ahal izango duzu, adeitasun eta errespetuz.

7. Familiekiko harremanak

- Familiekiko komunikazioa behar bezain ohikoa eta arina izango da, zerbitzua ematen den bitartean.
- Zure senide edo "erreferentziako" pertsona izendatu beharko duzu, eta harekin jarriko da harremanetan etxebizitza komunitarioa, beharrezkoa denean.

8. Irteerak – bisita ordutegiak – absentziak

- Nahi duzunean atera zaitezke etxebizitza komunitariotik, baina otorduen ordutegiak errespetatuz.
- Otorduren batera kale egiteko edo gaua etxebizitza komunitariotik kanpo pasatzeko asmoa baduzu, jakinaraz iezaiozu talde profesionalari.
- Egunean zehar bisitak jaso ditzakezu, etxeko aretoetan edo logelan. Langileei jakinarazi beharko diezu, programatutako jarduerak edo horien dinamikak beharrik gabe eten ez daitezen.
- Nahi duzunarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, eta zure telefono mugikorra izan dezakezu.
- Zentroko langileek eskubidea izango dute zentrotik ateratzeko eskatzeko lasaitasuna errespetatzen ez duten, egoiliarren edo langileen duintasuna edo integritate fisikoa errespetatzen ez duten edo jabetzak edo instalakuntzak errespetatzen ez dituzten pertsonen.
- Etxebizitza komunitarioan bizi zaren bitartean egun batzuetarako atera ahal izango duzu, baita epe luzeagoetarako ere, eta aldi horretan zure plaza gorde egingo da eta prezioa bertan egotean ordaintzen dena baino baxuagoa izango da. Prezio publikoen araudiaren arabera, prezioaren zenbatekoa aldatu egiten da ez egotearen arrazoien arabera: oporrak, ospitale-ratzea, beste baliabide batera aldi baterako lekualdatzea...

9. Parte hartzeko eskubidea

- Zerbitzuan parte hartzea faktore garrantzitsua da, eguneroko bizitzan eta funtzionamendu orokorrean oso eragin positiboa duena.

- Pertsonalki eragin diezazuketen erabakietan parte hartze aktiboa eta zuzena izan dezazun, zuri kontsultatuko zaizu, eta, hala eskatzen baduzu edo komenigarritzat jotzen bada, baita zure senideari edo erreferentziazko pertsonari ere.

- Zentroaren dinamika soziokulturalean parte hartzea boluntarioa, erabiltzaileei egokitua eta beraien proposamenei irekia izango da. Ahal den neurrian erantzungo zaie erabiltzaileen eskaerei.

10. Osasuna

- Medikazio aldaketa, elikadura erregimena, ohean geratzeko beharra, kontsultak eta ospitaleratzea, besteak beste, osasun sistema publikoko medikuak aginduta ezarriko dira beti.

- Mediku kontsultetara laguntzeko ardura familiena izango da. Aukera hori ez baduzu, kanpoko laguntza bilatzeko laguntza emango zaizu.

- Gaixorik bazaude, bisitak jaso ahal izango dituzu langileei jakinarazi ondoren, betiere osasun zentroko langileek kontrako agindurik eman ez badute.

- Une oro informazio osoa eta ulergarria emango zaizu eragin diezazuketen gai guztiei buruz: osasun egoera, tratamenduak... Nahi ez duzuna onartu edo baztertu ahal izango duzu.

- Zure osasun egoerak okerrera egiten badu eta etxebizitza komunitarioak eman diezazukeena baino arreta handiagoa behar baduzu, etxebizitzatik ateraz gero dituzun aukeren berri emango zaizu: senideen bizilekua, zentro soziosanitario pribatua... Aldi berean, mendekotasunaren berrikuspeneko espedientea hasiko da.

- Hil ondoren nola jokatu behar den adieraz dezakezu, zentroak zure azken nahiak betearaz ditzan.

11. Erreklamazioak, kexak eta iradokizunak egiteko prozedura

Zerbitzuak aukera ematen dizu antolaketari edo funtzionamenduari buruzko iradokizunak, erreklamazioak edo kexak aurkezteko, baldin eta zerbitzuaren kalitatean eragina badute edo zure eskubideak baliatzeko eragin zuzena edo zeharkakoa badute.

Zuzenean egin dezakezu edota gizarte zerbitzuan eskatu dezakezun instantzia baten bidez.

Iradokizunen postontzia ere baduzu zerbitzuan, zure hobetzeko iradokizunak eta kexak bertan uzteko.

12. Zehatzeko prozedura

1. Zehapen araubidea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen VII. tituluko II. kapituluan araututako arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie adinekoentzako zentroen erabiltzaileei.

a) Arau hausteen kalifikazioa eta tipifikazioa.

Arau hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

Arau hauste arinak.

Hauek dira arau hauste arinak:

a) Ezarrita dauden arauak, betekizunak eta prozedurak ez betetzea, eta zerbitzuetako profesionalen orientabideei eta programari ez jarraitzea, halako moduan non esku hartze sozialaren xedea indargabetu egiten baita.

b) Zuzendaritzako arduradunari, zerbitzuko edo zentroko pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari arinki huts egitea.

c) Instalazioak modu desegokian erabiltzea eta zerbitzuko jarduerak aztoratzea, bizikidetzako eta elkarrekiko errespetuko arauak asaldaturik eta bizikidetzari kalte eraginez.

d) Erabiltzaileentzako barne araubideko araudian jasotzen diren betebeharrak ez betetzea, ez betetze hori, bere izatasunagatik eta astuntasunagatik, astuntzat edo oso astuntzat tipifikatua izan ez denean.

Arau hauste astunak.

Honako hauek dira arau hauste astunak:

a) Zuzendaritzako arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari modu astunean huts egitea.

b) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan kalte astuna edo zentroko zerbitzuen ohiko garapenari edo bizikidetzari galera nabariak eragitea.

c) Barne araubideko kasuan kasuko arautegian jasotzen diren betebeharrak astunki ez betetzea, ez betetze hori oso astuna ez denean.

d) Arau hauste arinetan berrerortzea.

Arau hauste oso astunak.

Arau hauste oso astunak dira:

a) Zentroko arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei edo bisitariei eraso egitea edo tratatu txarrak ematea.

b) Zentroaren, pertsonalaren, erabiltzaileen edo bisitarien ondasunak ostea.

c) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan edo zerbitzuen ohiko garapenean edo zentroko bizikidetzan kalte edo galera oso astunak eragitea.

d) Arau hauste astunetan berrerortzea.

e) Arau hausteak behin eta berriro egitea.

Arautegi honen ondorioetarako, eta Gizarte Zerbitzuen legearen 92. artikuluekin bat etorriz, arau hausteen arduradun diren pertsona fisiko edo juridikoek bi urteko epe barruan izaera bereko arau hauste bat baino gehiago egin dutenean eta ebazpen irmo baten bidez aitortua izan denean esango da berrerortzea egon dela.

2. Zehapenak.

Zehapen motak.

1. Arau hausteek erabiltzaileei egoztekoak direnean, honako zehapen hauek aplikatzea eragingo dute:

a) Arau hauste arinak idatzizko zentzarazpen bidez eta/edo 200,00 eurorainoko isun bidez zehatuko dira.

b) Arau hauste astunak ahozko eta idatzizko zentzarazpen bidez eta 201,00 eurotik 600,00 eurora bitarteko isun bidez zehatuko dira.

c) Arau hauste oso astunak ahozko eta idatzizko zentzarazpen bidez eta 601,00 eurotik 1.500,00 eurora bitarteko isun bidez zehatuko dira.

2. Zerbitzuaren erabiltzaileei egozgarri zaizkien arau hauste oso astunetan, zehapen gisa eskubidearen etendura ere pilatu ahal izango da gehienez 6 hilabeteko aldi batean, zenbait kasutan izan ezik; adibidez, etendura horrek babesgabetasun egoeraren bat sor balezake edo mendekotasuneko egoeran dagoen pertsona baten arreta eza eragin balezake.

Zehapenen graduazioa.

1. Ezartzea bidezko den zehapenak zehazteko eta, behar izanez gero, isunen zenbatekoa eta aldi baterako zehapenen iraupena graduatzeko, zehapenen beharrezko egokitzapena eta proportzionaltasuna zaindu beharko dira, arau haustea eratzten duen egitearen astuntasunaren aldean, eta bereziki honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Eragindako kalte fisikoak, moralak eta materialak.
- b) Pertsona eta ondasunentzat sortutako edo mantendutako arriskuko egoera.
- c) Arau haustea egitean erabili den zabarkeria edo asmozkotasun maila.
- d) Berrerortzea edo arau haustea behin baino gehiagotan egitea.
- e) Arau haustearen eragin ekonomikoa eta soziala.

2. Prozedura hasarazi zuten akatsak guztiz zuzenduta daudela egiaztatzen bada, kontuan hartzeko modukoa izango da hori, zehapena balioesteko eta graduatzeko orduan. Zuzenbidean balio duen edozein bide erabil daiteke egiaztapena egiteko, baina instantziaren ebazpena eman aurretik egin behar da, betiere pertsona edo erakunde arau hauslearen ekimenez.

Litezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

Hala badagokio aplikatu litezkeen neurri zuzentzaileei kalterik egin gabe, erabiltzaileen ardura da zentroko instalazioetan, altzarietan edo materialean edo beste erabiltzaileen ondasunetan sortutako kaltea konpontzea, nahita edo zabarkeria astunagatik, bizikidetasun arauen aurkako jokabide baten ondorioz, sortu badira.

3. Arau hausteen eta zehapenen preskripzioa:

1. Arau hausteak epe hauetan preskribatuko dira, arau haustea egin den egunetik zenbatzen hasita:

- a) Arau hauste oso astunak, lau urtetan.
- b) Arau hauste astunak, hiru urtetan.
- c) Arau hauste arinak, urtebetean.

2. Zehapenak epe hauetan preskribatuko dira, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik zenbatzen hasita:

- a) Arau hauste oso astunengatiko zehapenak, lau urtetan.
- b) Arau hauste astunengatiko zehapenak, hiru urtetan.
- c) Arau hauste arinengatiko zehapenak, urtebetean.

4. Zehatzeko prozedura.

A. Prozedura.

1. Arautegi honetan xedatutako zehapenak horretarako ezarritako prozedura izapidetu ostean eta interesdunari entzunaldia ematearen, ekonomiaren, arintasunaren eta sumariotasunaren printzipioekin bat etorritik ezarriko dira.

2. Zehapen prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da.

B. Egitateak egiaztatzea eta tipifikazioa.

Aurreko ataletan xedatutakoaren arabera arau hauste gisa tipifikatu ahal den egitate bat gobernu batzarraren aurrean salatutakoan, batzar horrek egitatearen egiazkotasunari buruzko lehen egiaztapena egingo du eta erabakiko du:

- a) Lehenik, egitatearen izaera, astuntasuna zehazteko asmoz.

b) Bigarrenik, salaketa organo eskudunari helarazteari buruzkoa, instrukzioa egin dezan.

c) Erabiltzaileen osotasun fisikoa berehalako arriskuan jartzen den kasuetan, eta erabateko salbuespen gisa, zentroko arduradunek beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartuko dituzte erabiltzaileen osotasun fisikoa babesteko.

Espedientea izapidetu bitartean edozein unetan zehazten bada arau haustea eratzten duten egitateak Kode Penalean tipifikatuta egon daitezkeela, Fiskaltzari jakinarazi beharko zaio. Bitartean, zehapen espedientearen izapidetzea eten egin beharko da, dagokion ebazpen judiziala eman arte. Hori, behin behineko neurri egokiak eta egitateen arabekoak hartzeko aukerari kalterik egin gabe.

C. Zehapenak aplikatzea.

1. Arau hauste arina denean, organo eskudunak erabakiko du ezarri beharreko zehapenari buruz, alde zuretik interesdunari zitezkoa eginda eta entzunaldia emanda, eta erabiltzaileari ahoz kargu hartu ahal izango dio, betiere erabiltzaileari entzun ondoren.

2. Arau hauste astuna edo oso astuna denean, organo eskudunak instruktore bat izendatuko du, eta hark, ahalik eta lasterren, ikerketa egokia egingo du, egokitzat jotzen duen proposamena egiteko, indarrean dagoen araudiaren arabera, interesdunari eta organo eskudunari entzun ondoren.

Zehapen prozedura ebazteko eskumena duen organoak bere ebazpenaren berri emango dio etxebizitza komunitarioari.

3. Nolanahi ere, isunak ezartzea Udaleko Alkate anderearen eskumena izango da, arau haustea arina, astuna zein oso astuna izan.

5. Errekurtsoak.

Zehapena ezartzen duten egintzen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitako errekurtsoak jarri ahal izango dira.

6. Zehapenak bete beharra.

Arau honen xede diren gaitan ezarritako zehapenak erabakitzen dituen ebazpenak administrazio bidean irimotasuna eskuratzen dutenetik izango dira bete beharrekoak.

7. Zehapenen erregistroa eta publikotasuna.

1. Arau hausteak eta zehapenak erregistro batean sartuko dira; hor, arau haustearen data, subjektu den pertsona edo pertsonak eta ezarritako zehapenaren ezaugarriak jasoko dira.

2. Arau hausteen eta zehapenen erregistroa leku seguru batean gorde beharko da.

13. Azken xedapena

Arautegi hau indarrean jarriko da ALHAOn oso osorik argitaratu ondorengo hamabosgarren egun baliodunean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2025eko abenduaren 3a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ